

- 1. dorretzarra: dorretzar honetan eraman genuen burura balorazioa egiteko zundaketa. Oinplano zirkularra du, apur bat etena edo bihurria, hormak landu gabeko kareharriez eta errekarriez eginak, harriak era irregular batean ipiniak, baina aurpegi ondo landua osatuz. Harrien arteko junturetan kareore gris eta oso gogorra bereizten da..
- 2. dorretzarra: lau angeluko oinplanoa duen dorretzarra hautematen da. Hormak landu gabeko harriz eginak dira, baina eskantzueta haren harrizko bloke angeluzuzenak baliatu zituzten, harlanduen itxura eman nahian.
- 3. dorretzarra. oinplano zirkularreko dorretzarra, hormak landu gabeko kareharri txikiekin eginak, harrien arteko junturetan kareore grisa eta oso gogorra.
- 4. dorretzarra. okerren kontserbatu den egitura da. Erregistratu ahal izan ditugun datuak eskuan, guk uste dugu landu gabeko harriz egindako oinplano zirkularreko dorretzarra dela.
- Torreón 1: Se trata del torreón donde se ha realizado el sondeo valorativo. Presenta planta circular, levemente quebrada o sinuosa y un aparejo de mampostería caliza y cantos de río dispuestos de manera irregular, aunque formando una cara bien trabajada. Dispone de un mortero grisáceo y muy duro entre las juntas.
- Torreón 2: Se intuye un torreón de planta cuadrangular, construido con bloques de arenisca rectangulares para los esquinales, imitando la sillería y mampostería en el resto de la obra.
- Torreón 3. Torreón de planta circular, formado por piezas de mampostería de pequeño tamaño de origen calizo, con mortero grisáceo y muy duro entre las juntas.
- Torreón 4. Se trata de la estructura peor conservada. Con los datos que hemos podido registrar parece tratarse de un torreón de planta circular levantado con mampostería.

2.- Zorupearen potentzial arkeologikoari dagokionez, burura eramandako zundaketek ez dute behin betiko konklusioak aurreratzeko modurik eskaintzen, induskatutako eremua oso txikia baita aztarnategiaren guztizko perimetroan. Hala eta guztiz ere, depositu batzuk erregistratu ahal izan ditugu, gure aburuz goiko barrutiko gainazal erabilgarria emendatzeko xedean eta, beraz, maila berdintzeko xedean egokituak izan zirenak. Lortutako datuak eskuan ditugula, aipatu ekimena XIX. mendean kokatu behar dugu, seguru asko mende hartan zehar izandako gerren testuinguruan.

2.- Respecto al potencial estratigráfico del subsuelo, los sondeos valorativos realizados no permiten establecer conclusiones definitivas, ya que el área excavada es escasa respecto al total del perímetro del yacimiento. Sin embargo, hemos podido registrar una serie de depósitos que pueden interpretarse como niveles de aterrazamiento tendentes a ampliar la superficie útil del recinto superior. Con los datos exhumados hemos podido acotar dicha actividad en el siglo XIX, probablemente durante las guerras que se produjeron durante ese siglo.

M. Neira Zubieta

B.6. BERRIZ

B.6.1. San Pedro Legañoako basiliza

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Berrizko Udala

B.6.1. Ermita de San Pedro de Legaño

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Ayuntamiento de Berriz

The establishment of environmentally-friendly itineraries by the Berriz Local Council near the presumed archaeological site of San Pedro de Legaño Chapel prompted a series of sondages which enabled the discovery of archaeological remains and the identification of their various states of conservation. The results were positive.

The evidence documented indicates that the site was used for burial purposes during two distinct historical periods: the 19th century, coinciding with the organisation of extra-ecclesiastical cemeteries, and a less defined period during the Middle Ages, in which funerary characteristics similar to those found at the medieval cemetery of Oiz were identified. The results obtained to date for charting the biography of the building's ruins have been less satisfactory.

San Pedro Legañoako basiliza, Berrizko kultura ondarearen elementu ia ezezaguna

Berrizko Udalak 2010eko udazkenean abiarazi beharreko bide ekologikoak gaitzeko proiektuak eragin zuen San Pedro Legañoako basiliza zaharraren hondakinei leku egiten dien toki honetan burura eramandako esku-hartze arkeologikoa. Obren programaren arabera, oso eragin txikia izango zuten lanek udalerriko ustezko eremu arkeologikoen zerrendara biltzen den elementu honetan.

Ez da erraza San Pedro Legañoako basilizaren interes historikoa zehaztea, garaiko dokumentazio historikoan oso oihartzun txikia izan duen elementua delako eta egungo ikerlarien interesa erakarri ez duelako.

XVIII. mende amaieran bere Historia de Vizcaya (Bizkaiko Historia) idatzi zuen Juan Ramón de Iturriza y Zabala da San Pedro basilizari halako antzinatasun bat aitortzen dion egile bakarra, baina ez du haren fundazio unearen kronologia zehatza argitzen: *Las ermitas de la feligresía de Berriz son quince; la de San Pedro Apóstol con tradición de haber sido parroquia en la antigüedad, en cuya proximidad existen dos sepulcros de piedra (...)*.

Historialariak aipatzen dituen hilobi bietako bat udal hilerriaren kanpoko aldean dagoena dela dio ahozko tradizioak. Hala eta guztiz ere, azken lanek, hilkutxaren alboak apaintzen dituzten lerro geometrikoen azterketan oinarriturik, XVI. mende amaieran kokatzen dute hilobia. Erdi Aroari buruzko egungo historiografiak, bere aldetik, ez du San Pedro Legañoako lekua Erdi Aroko fundazio bakar batekin ere lotzen.

Baseliza honen jatorria ezezaguna bada, iluna ere da historian bizi izan zuen garapena. Obren liburu bakar bat kontserbatzen da, 1686. urtetik 1785. urtera artekoak jasotzen dituena, baina ez dirudi lehenengo liburua denik. Liburu hartan ez dago, monumentu honi begira bederen, interes arkeologikoa piztu dezakeen ezer, konponketaren bat teilatuan eta erreten batzuetan egindako garbitze lanak baino ez, erreten horiek babesten baitzuten eraikina ondoko Lariz errekek tarteka bizi izaten zituen uholdeetatik.

Guk uste dugu XIX. mende hasieran etorri zela behera eraikina. Gure irizpidea Pascual Madozen Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico hiztegian Berrizko elizateri egiten dion aipamenean oinarritzen dugu. Elizatean sei basiliza zeudela esaten du, eta horietako bakar bat ere ez da San Pedro Legañoakoa.

Agian behera etortze goiztiar hark eragin zuen eraikina hilerri gisa baliatu izana behin-behinean, 1980. urtean eraikitako egungo hilerriaren aurreko kronologian, populatutako herritik urrutira. Bertako

La ermita de San Pedro de Legaño, un elemento de patrimonio cultural de Berriz apenas conocido

La actuación arqueológica en el enclave donde se ubican las ruinas de la antigua ermita de San Pedro de Legaño, nace motivada por un proyecto de habilitación de itinerarios ecológicos que tenía previsto acometer el Ayuntamiento de Berriz en el otoño de 2010. El programa de obras representaba una afección menor para un elemento que está incluido en la declaración de zonas de presunción arqueológica del municipio.

No es fácil determinar el interés histórico de la ermita de San Pedro de Legaño, puesto que es un elemento que ha encontrado muy escaso eco en la documentación histórica de época y no ha atraído el interés de los investigadores actuales.

Juan Ramón de Iturriza y Zabala, quien escribiera su Historia de Vizcaya a fines del siglo XVIII, es el único autor que atribuye alguna antigüedad a la ermita de San Pedro, si bien no aclara la cronología precisa de ese momento fundacional: *Las ermitas de la feligresía de Berriz son quince; la de San Pedro Apóstol con tradición de haber sido parroquia en la antigüedad, en cuya proximidad existen dos sepulcros de piedra (...)*.

La tradición oral sostiene que uno de esos sepulcros que cita el historiador corresponde al que se localiza en el exterior del cementerio municipal. Sin embargo, recientes trabajos datan el sepulcro a fines del siglo XVI, apoyados en el estudio de las tracerías geométricas que ornán los laterales de la caja. La historiografía medieval actual, por otra parte, no relaciona el enclave de San Pedro de Legaño con ninguna fundación de tiempos medievales.

Si desconocido es el origen de esta ermita, su desarrollo histórico no resulta menos oscuro. Conservamos un único libro de fábrica, que cubre una horquilla temporal de 1686 a 1785, aunque no parece ser el primero. En él, no hay noticia de interés arqueológico para el monumento, aparte de algún arreglo en su tejado y de la obligada limpieza de unas zanjas que mantenían el edificio a resguardo de los ocasionales desbordamientos de la cercana corriente del Lariz.

Podemos suponer que la edificación se arruinó a principios del siglo XIX. Basaríamos tal criterio en la mención que se realiza a la anteiglesia de Berriz en el Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de Pascual Madoz. Se citan seis ermitas como existentes en la anteiglesia, ninguna de las cuales es la de San Pedro de Legaño.

Quizá esa ruina temprana favoreció el hecho de que el edificio fuera utilizado de manera provisional como cementerio, en una cronología anterior a la construcción del camposanto actual, levantado en el año 1890 en un

biztanleen ahozko tradizioan erabilera horixe ematen zaio.

San Pedro basilizaren funtzio hori, hilerri izaerako erabilera hori, tarteko aldi batean eman zela dirudi, hilobiak San Joan Bataiatzailearen parrokia-elizaren barrutik ateratzen hasi zirenetik XIX. mendean eraikitako egungo hilerriaren behin betiko okupazioa gertatu zenera arteko denbora tartean. Lehendik, gure lurraldean ohikoa zenez, elizaz kanpoko hilerria parrokia-elizaren eraikinetik gertu egongo zen, haren erabilera tenpluaren barruko sendien hilobi zaharren erabilerekin txandaturuz, lur emateko leku berriei buruzko xedapen administratiboak saihesteko modua zegoenean. 1911. urtean bedekatu zuten hilerri hau. Baina 1852ko eta 1854ko izurrien ostean sortutako osasungarritasun ezak eragindako arazoak eta lur emateko lekuei buruzko legeria betearazteko agintari zibilen zaintza zorrotzagoak behartu zuten udala San Pedro basiliza udal hilerri gisa antolatzerara.

Eraikinaren egungo hondakinetan deus ez da leku honek XIX. mendean izan zuen hilerri erabilera iradoki dezakeenik.

Esku-hartze arkeologikoaren garapenari buruzko iruzkinak

Ikusirik soilik iturri idatziak baliatuta ondare elementu hau zehazteko dauden aukerak oso-oso urriak direla, arkeologia aukera egokia zela ematen zuen. Eta batez ere Berrizko Udalak hondakinetatik erauzitako laharrek kendu ostean, hondakinak hobe ikusteko eta eraikinetik behera etorritakoen artean material hondakin interesgarriak aurkitzeko parada eskaini baitu.

Landareak ateratzeko lan hori sakoneran baino luze-zabaleran egin zen. Helburua hondakinak agerian uztea zen, prozesuan zehar hormei kalterik eragin gabe edo haietan ezer hautsi gabe.

Laharra aterata, hobe zehaztu ahal izan dugu eraikin zaharra. Agerian geratzen da gela handi eta nagusi bat, lau angeluko joerarekin oinplanoan, eraikuntzen multzoa antolatzen duena. Ardatz nagusian 11,55 metro luze da, eta ardatz txikian 10,55 metro. Estalkirik gabe, horma atal batzuk 3 metroko garaierara iristen dira, esate baterako hegoaldeko eta mendebaldeko hormak. Horma baxuagoak dira iparraldeko itxituraren atal batean eta hego-ekialdeko angeluan. Gainerako horma atalak behe aldean baizik ez dira kontserbatu, behera etorritako materialek osatutako geruzen azpian.

Landu gabeko harrizko estekadura ageri dute hormek, harriak neurri askotakoak. Estekaduran hautematen diren antolamendu era ezberdinek obra bat baino gehiago iradokitzen dute. Hego-ekialdeko

paraje alejado del núcleo habitado. Ese uso aún puede recogerse en la tradición oral de los lugareños.

Esta función de la ermita de San Pedro como espacio funerario parece corresponder a una fase intermedia, entre el momento en el que los enterramientos abandonan el interior de la iglesia parroquial de San Juan Evangelista y la ocupación definitiva del actual camposanto a fines del siglo XIX. Previamente, y como suele ser práctica habitual en el territorio, la ubicación extraeclesial del cementerio buscó la proximidad del edificio de la parroquia, permitiendo alternar su uso con la reocupación de las antiguas sepulturas familiares del interior del templo, cuando era posible eludir las disposiciones administrativas sobre los nuevos lugares para sepelio. Este camposanto se bendice en 1811. Son los problemas de insalubridad que se crean tras las epidemias de 1852 y 1854, y una mayor vigilancia de la autoridad civil en el cumplimiento de la legislación sobre los lugares de enterramiento, los que obligan al consistorio a adecuar la ermita de San Pedro como camposanto municipal.

Nada en las ruinas actuales del edificio permite reconocer vestigios de esa dedicación funeraria del enclave en el siglo XIX.

Notas sobre el desarrollo de la actuación arqueológica

Constatadas las escasas posibilidades que existen para biografar este elemento patrimonial desde el exclusivo recurso a las fuentes documentales, la arqueología parecía imponerse como una alternativa satisfactoria. Y especialmente tras los trabajos de retirada de maleza efectuados por el Ayuntamiento de Berriz en las ruinas, que han permitido una mejor visualización de ellas y la localización de restos materiales de interés entre los derrumbes del edificio.

Esa limpieza de la vegetación se ha acometido con planteamientos extensivos antes que intensivos. El objetivo era despejar la ruina, sin que la fábrica sufriera alteraciones o desperfectos durante el proceso.

Retirar la maleza ha permitido definir mejor la antigua construcción. Se descubre así una gran estancia principal, de tendencia cuadrangular, que organiza el conjunto constructivo. Tiene 11,55 metros en su eje mayor, ordenado en sentido este-oeste, y 10,55 en su eje menor. Desprovista de cubierta, conserva muros de hasta 3 metros de altura en algunos puntos de su fábrica, como en el cierre meridional y en el occidental. Alzados menores se documentan en una parte del cierre norte y en el ángulo sureste. El resto de los muros apenas mantienen visible su parte inferior, oculta bajo capas de derrumbe.

La fábrica está aparejada en mampostería ordinaria, con piezas de distinto calibre. La variedad organizativa del aparejo parece manifestar muy distintas intervenciones. En el exterior del esquinal

izkinaren kanpoko aldean luze-zeharka ipinitako harlandu txiki bat bereizten da.

Areto nagusi honetan kontserbatutako hormetan barruko aldea argiztatzeko bao bakar bat hauteman dugu. Bao hau hegoaldeko itxitura horman irekitzen da, hego-ekialdeko izkinatik gertu. Isuri bitan landutako hareharrizko harlanduek inguratzen dute bao osoa.

Barruti nagusiaren iparraldeko hormari atxikita beste gela txikiago bat bereizten da, aipatu hormaren luzeraren erdialdean. Angeluzuzena da oinplanoan, ardatz nagusia ekialdetik mendebaldera, eta barruko aldera honako neurri hauek ditu: 3,70 x 2,80 metro. Hormak landu gabeko harri arruntez eginak ditu, neurri askotako hareharrizko piezak dira. Mendebaldeko itxitura horman du sarrera, albo batera. Hareharri landuekin, gutxienez oinarrian kontserbatu baita halako bat, eraikitako ate zango batzuek definitzen dute sarrera. Gela honetan dokumentaturiko hormarik garaiena ekialdekoa da, ia hiru metro garai baita. Kontserbatutako horma ataletan ez da argia emateko baoen arrastorik bat ere hautematen.

Neurri txikiagoko eraikin honen iparraldean eta mendebaldean terraza artifizial bat dago, inguruko lur

sureste se descubre sillarejo dispuesto a soga y tizón.

En los alzados conservados de esta estancia principal, sólo se ha detectado la presencia de un vano de iluminación, abierto en su cierre meridional, en proximidad a la esquina sureste. Se define todo el hueco con piezas de sillería arenisca, labradas con doble derrame.

Una estancia de menor tamaño se adosa al muro norte del recinto principal, centrada sobre la longitud de dicho cierre. Es rectangular en planta, ordena su eje mayor en sentido este-oeste y presenta unas dimensiones interiores de 3,70 x 2,80 metros. También se aparece en mampostería ordinaria, con piezas areniscas de muy diverso tamaño. Presenta hueco de ingreso sobre su cierre oeste, algo lateralizado. Definen el vano unas jambas construidas en sillería arenisca, al menos en su base, la única conservada. El mayor alzado de la estancia se documenta sobre el cierre oriental, alcanzado casi los tres metros de altura. En la fábrica conservada no se observan evidencias de vanos de iluminación.

Al norte y oeste de esta construcción de menor dimensión, se ha efectuado un aterrazamiento artifi-



San Pedro Legañoeko basiliza. 1. zundaketa. Erdi Aroko kronologia duten hilobien aztarnak.

Ermita de San Pedro de Legaño. Sondeo 1. Evidencias funerarias de cronología medieval.

eremuaren kotatik gora baitago eta haren perimetroa landu gabeko harriz estalita dagoelako.

«Terraza» horretako estalkia osatzen duten materialen artean lehenengo material hondakin interesgarria dokumentatu genuen. Hareharrizko sarkofago baten kutxaren zati bat, aipatu kutxaren goi herenetik, burualdetik, etorria seguru asko. Pentsa liteke Iturriza y Zabalak Berrizko San Pedro Apostoluaren basilizari begira aipatzen duen sarkofago pareta osatzen duena izatea.

Bigarren aztarna neurri handiagoko aretoaren ekialdeko itxuratik kontserbatutako hormaren gainean aurkitu genuen. Behera etorritako materialekin batean ageri zen, eta horrexegatik ez dakigu hondakin hori jatorrian eraikinaren hormetara biltzen zen, estekaduraren osagarri, ala bere horretan utzi zuten beste edozein unetan, leku honi beste erabilera bat emateko xedean burututako egokitzapen garaietan. Material hondakin honen neurriak eta ezaugarriek bertara bilduko zen elementua dela iradokitzen dute, eta ez beste iturri batetik ekarritako pieza.

Aipatutako hondakin hau arkeologiaren literaturak «zulatutako estalki monolitiko» gisa kalifikatzen duen pieza da, Erdi Aroko apud ecclesiam hilobiak estaltzeko piezen modukoa.

Aurrekari hauek gogoan, esku-hartze arkeologikoari begira planteatutako helburuek leku hau ebaluatzea bila zuten, hau da, zorupean arrasto eta hondakin materialak ba ote ziren egiaztatzea bila zuten, San Pedro Legañoeko lekuari buruzko informazioa biltzeko eta erregistro arkeologikoaren kalitatea zehazteko, dena historia berreraikitzeke programetan aplikatzeko xedean.

Premisa horietatik abiatu, neurri askotako sei zundaketa egin genituen. Bi hegoaldeko sektorean, haien muturretako bat basilizaren hormen ertzetik oso gertu, eraikinaren zimentarria partzialki agerian uzteko xedean. Beste bi hondakinetakoko areto nagusiaren barruko aldean, biak guztietan handienak. Bosgarrena iparraldeko sektorearen berri izateko. Eta seigarrena ekialdean, basilizari leku egiten dion tokia inguratzen duen bidearen beste aldean, bide horren parean ageri zen hareharrizko harri xabala berezkoa hala artifiziala ote zen jakiteko.

Ez genuen hondakin arkitektonikoak ebaluatzeke lanik egin. Une hartan hondakinak ez aztertzeke arrazoiaren oinarrian zegoen Berrizko Udalak oraindik ez zuela haiei begira, ibilbide ekologikoak gaitzeko proiektura biltzen diren hondakin haiei begira, programa zehatzik ebatzi. Programa osatu gabe egonik, ezin hormak modu integral batez garbitu zitezkeen, eta beraz, ezin izan genituen hormetako estekadurak behar bezala ikusi eta aztertu. Era berean, ez genituen hondakinaren gunera batzuetan pilatzen ziren zaborrak ukitu.

cial, identificado por la cota elevada que impone sobre el terreno circundante y por la obra de mampuestos que conforma su forro perimetral.

Entre el material que compone el forro de esa «terrazza» se documentó un primer resto material de interés. En concreto, un fragmento de la caja de un sarcófago en piedra arenisca, posiblemente el tercio superior de dicha caja, perteneciente a la zona de la cabecera. Cabe pensar que pudiera tratarse del elemento que completa el par de sarcófagos que refiere Iturriza y Zabalak en la ermita de San Pedro Apóstol de Berriz.

El segundo vestigio apareció sobre el alzado conservado del cierre oriental de la estancia de mayor dimensión. Se asociaba a niveles de derrumbe, razón por la que no es posible avanzar por el momento si dicho resto estuvo integrado en la fábrica de la construcción, como parte del aparejo, o fue depositado en tal posición en otro momento cualquiera en el que fue acondicionado y utilizado el enclave para distintos fines. El tamaño y características de ese resto material parecían ligarlo con una localización en el mismo emplazamiento, antes que interpretar su presencia como una pieza traída desde otra fuente.

El citado resto se corresponde con lo que la literatura arqueológica ha dado en calificar como «cubiertas monolíticas horadadas», en relación con la cobertura de enterramientos apud ecclesiam medievales.

Con estos antecedentes, los objetivos que se plantearon para la actuación arqueológica perseguían evaluar el enclave respecto a la presencia o ausencia de evidencias y restos materiales en el subsuelo que arrojasen información para biografar el enclave de San Pedro de Legaño y, de conservarse tales evidencias, determinar la calidad del registro arqueológico para su aplicación en programas de reconstrucción histórica.

Desde tales premisas, se acomete la realización de seis sondeos de diversa dimensión. Dos en el sector meridional, con uno de sus bordes inmediato a la fábrica de la ermita, con el fin de despejar parcialmente su cimentación. Otros dos en el interior de la estancia principal de las ruinas, los de mayor amplitud dimensional. Un quinto para evaluar el sector del norte. Y un sexto sondeo al este, al otro lado del camino que bordea el enclave de la ermita, para comprobar el carácter natural o artificial de una losa arenisca que asomaba en el frente de dicho camino.

Se prescindió de cualquier evaluación de las ruinas arquitectónicas. La razón de no examinar las ruinas en este momento se sustenta en el hecho de que el Ayuntamiento de Berriz no disponía aún de un programa concreto para las mismas, acogido al proyecto de habilitación de itinerarios ecológicos. Carecer de dicho programa suponía la interrupción de las labores de limpieza integral de los muros, dificultando la correcta visualización del aparejo para su estudio. Tampoco se procedió a retirar los escombros que se acumulaban en distintas partes de la ruina.

Emaitzen laburpena: bi hilerrri-aldi San Pedro Legañoan

Burura eramandako sei zundaketetatik bostek emaitza positiboak eskaini zituzten. Iparraldean egindako zundaketak ez zuen zuzeneko aztarna bakar bat ere eskaini.

Zundaketa bakoitzean tokiko historiarentzat interesgarriak diren aztarnak topatu arte baino ez genuen utzi agerian estratigrafia, ez genuen aztarna horietan sakontzen jarraitu, ez eta dokumentatzen ere; egiteko hauek gerorako utzi dira, San Pedro Legañoan toki hau ebaluatzeke, induskatzeko eta erregistratzeko proiektu integral bat erredaktatzen denerako. Proiektu horretan aukera izango da aurri egoeran dagoen eraikinaren biografia osatzeko, baina zundaketa arkeologikoen aldian agerian utzitako zimentarriak itxaropen handiak eskaintzen ez dituela aurreratu behar dugu guk. Aztarnategiaren sekuentzia estratigrafikoa ez da batere esanguratsua, dokumentatutako aztarna arkeologikoen parterik handiena zuzenean estaltzen duen sedimentu buztintsuez osatutako pakete lodi bat eta bakarra baita. Bestalde, Bizkaiko lurraldeko beste aztarnategietan burututako jardura arkeologikoetan egiaztatu bezala, buztin hauek ez dira batere egokiak aztarna jakin batzuk aurkitzeko eta identifikatzeko, esate baterako, zimentarrietarako erretanak, paldoak egokitzeko zuloak eta gisakoak aurkitzeko eta identifikatzeko.

Hondakinen barruan egindako zundaketek aukera eman dute baseliza honi XIX. mendearen bigarren erdialdean hilerrri erabilera eman ziotela egiaztatzeke, dokumentuek eta ahozko aipamenek adierazten zuten bezala. Espazio honen dokumentazioan gehiago sakonduta aukera izango dugu hilerrri honek izan zituena ezaugarriak eta antolamendua ezagutzeko, gisa honetako elementua ez baita Bizkaian eta orain arte arkeologikoki ebaluatu. Hondakinen hego-ekialdean zuzenean zoruaren gainean egokitutako bi hilkutxa dokumentatzen dira, ekialdetik mendebaldera. Iparmendebaldean, hilkutxei leku egiteko egitura baten presentzia dokumentatzen da, harriaren landua, iparraldetik hegoaldera egokitutako hilobiekin. Ez dakigu zenbat hilobi dauden, multzoak esku-hartze arkeologikoaren eremua gainditzen duelako eta horma egitura batzuk estalkien gainean egokitzen direlako.

Hilerrriaren kronologia modernoz gairi, nahiz eta horrek ez dion baliorik kentzen azterketari, garrantzi berezia du arestian aipatutako egiturak, hilkutxei leku egiten dienak. Bizkaian XVIII. mendean zehar eraikitako elizen arteko hilerriekin lotzen dugun hilobi modalitate bat da. Hala eta guztiz ere, ez da harriztekoa Berrizek halako hilobi tipologia batez hornitu izana San Pedro Legañoan hilerrria, herriko parrokiak prozesu horretan oso berandu berritu baitzuen bere hilerrria, 1798. urtean hain zuzen. Une bien arteko kronologiaren hurbiltasunak justifikatuko

Resumen de resultados: la definición de dos etapas cementeriales para San Pedro de Legaño

De los seis sondeos acometidos, cinco proporcionaron resultados positivos, no arrojando ninguna evidencia directa el que se practicó al norte.

La estratigrafía en cada sondeo fue evaluada hasta que se localizaron vestigios de interés para la historia del enclave, no insistiéndose en la excavación y documentación de los mismos, una tarea que quedó temporalmente pospuesta hasta el momento en el que sea posible la redacción de un proyecto integral de evaluación, excavación y registro de San Pedro de Legaño. En ese proyecto, la reconstrucción biográfica del edificio en ruinas encontrará su oportuna adecuación, si bien la cimentación despejada durante la fase de sondeos arqueológicos no alimenta las expectativas en ese sentido. La secuencia estratigráfica del yacimiento es poco significativa a tales efectos, con un único y espeso paquete de sedimentos arcillosos que cubre directamente la mayor parte de las evidencias arqueológicas documentadas. Igualmente, la naturaleza de las arcillas, tal y como ha constatado la experiencia arqueológica en otros yacimientos del territorio vizcaíno, no resultará propicia para la localización e identificación de determinadas evidencias, como los cortes de las zanjas de cimentación o de drenaje, agujeros de poste, etc.

Los sondeos practicados en el interior de las ruinas han permitido certificar la dedicación cementerial de la ermita durante la segunda mitad del XIX, tal y como se tenía constancia documental y oral. Profundizar con mayor intensidad en la documentación de este espacio permitirá conocer las características y la organización que tuvo este cementerio, un tipo de elemento que no ha sido evaluado arqueológicamente hasta el presente en Bizkaia. Sobre la zona sureste de las ruinas se ha comprobado la existencia de dos ataúdes enterrados directamente en el suelo, orientados en sentido este-oeste. En la zona noroeste, se documenta la presencia de una estructura de encajonado, labrado en piedra, con sepulturas orientadas en sentido norte-sur. El número de sepulturas permanece indeterminado puesto que la obra excede el área de intervención arqueológica y algunas estructuras de muro se superponen sobre las cubiertas.

Más allá de la modernidad cronológica del cementerio, que no le resta valor alguno a su estudio, la presencia del encajonado adquiere especial relevancia. Es esta una modalidad funeraria que conocemos asociada a los cementerios intraeclesiales que se construyeron en Bizkaia a lo largo del siglo XVIII. No debe resultarnos sin embargo extraño el hecho de que Berriz dotara al camposanto de San Pedro de Legaño de esa tipologia funeraria, toda vez que la parroquial renueva su cementerio en una fecha tan tardía para ese proceso como el año 1798. La cercanía cronológica entre

luke eredia errepikatu izana baselizari hilerri erabilera emateko xedean hura egokitu zutenean.

Baina, harrigarriro, eta hortik hura hobe ezagutzeko sakontzen jarraitzeko interesa, Legaño kaxadurak edo egiturak ez dio San Joan Ebanjelaria parrokiako ereduari erantzuten. Parrokian hilobietako estaliak egiteko zura erabili bazuten ere, geografikoki gertu dauden beste tenplu batzuetan bezala, San Pedro Legañoan hareharrizko harri xabal hirukoitzak baliatu zituzten horretarako.

Eta harri xabal hauetako batzuk lantzeko, berriro ere aprobetxatu zituzten, zenbaitetan, askoz ere lehenagotik erabili izan zen hilerri espaziotik ekarritako piezak edo elementuak. Bestela ez da ulertzen nola egituran dokumentatutako bi hilobietako estalkiko piezetako batek, hilobia ireki ahal izateko izan ohi duten zulo angeluzuzenez gainera, beste zulo zirkular bat duen, harri xabalaren erditik urrun.

Honek, hasiera batean, baselizaren ekialdeko hormatik behera etorritako hondakinekin batean topatu genuen estalki zuloduna ekarri zigun gogora. Zulo zirkularrak ageri zituen aztarna kopuru handi hori aintzat harturik, harrizko elementu hauek guztiak nondik ekarriak izango ote ziren planteatu genuen; agian bertatik bertara berreskuratutako piezak ziren, beharbada beste lekuetatik ekarriak harrizko kaxadura eraikitzeo programarako nahikoa lehengaiak izateko.

Kontu honen inguruan egon zitekeen edozein zailtza argitu zuen hondakinetatik kanpora, hegoaldeko eta ekialdeko eremuetan, burura eramandako zundaketek agerian utzitako aztarnen multzoak. Zundaketa guztietan agerian geratzen da Legaño lekua hilerri gisa erabili zutela Erdi Aroan, gisa honek aztarnategietan arkeologikoki egiaztatutako aztarnek lotzen dituzten eraikuntza eta forma izaerako ezaugarriak baitituzte den-denek.

Lehen ere esan dugun bezala lan arkeologikoak eten egin bagenituen ere Erdi Aroko hilobi elementuak hauteman eta haien tipologia egiaztatu bezain laster, estalkiaren funtzioa betetzen duten hareharrizko harri xabal batzuk erregistratu genituen, horietako zenbaitek zulo zirkularrekin mendebaldeko muturrean, Oizko nekropoliko hilobietako estalkien gisako ezaugarriekin. Era berean, bertikalean finkatutako harrien goiko ertzak hauteman genituen, lerro zuzenak eratuz, arkeologiaren literaturak harri xabalez egindako hilobien forma eta eskemekin lotzen dituena. Kasuetako batean elementu multzo hau bertikalean egokitutako harri xabal bati, mendebaldean finkatuari, atxikita ageri da, eta ondorioz hilobitzat jo zen. Harri xabalak ez zuen inskripziorik, ez eta dekorazio izaerako motiborik ere.

Dokumentatutako aztarnek leku interesgarri bihurtzen dute San Pedro Legaño bertan aztertzen

ambos momentos, justificaría la repetición del modelo cuando se acondiciona la ermita para usos funerarios.

Lo curioso del caso, y de ahí el interés de profundizar en su conocimiento, es que el encajonado de Legaño modifica el modelo acometido en la parroquia de San Juan Evangelista. Frente al uso que se hizo en ésta de la madera para componer la cubierta de las sepulturas, difundido también en otros templos geográficamente cercanos, se recurre ahora a una triple losa de arenisca.

Y para labrar algunas de esas losas se reaprovechan, en determinados casos, elementos procedentes de un espacio cementerial mucho anterior en su cronología de uso. Sólo así se justificaría que en alguna de las piezas de cubierta de las dos sepulturas encajonadas que se han documentado, además de la perforación rectangular que existe para facilitar su apertura, se constata un orificio circular en posición excéntrica a la losa en la que se localiza.

Tal hecho nos remite, en primera instancia, a la cubierta horadada que se localizó integrada en el derrumbe del alzado del muro oriental de la ermita. Constatar ese variado número de evidencias de horadación circular, llevó a plantearse por la procedencia de todos estos elementos pétreos, bien como piezas recuperadas en el propio enclave, bien como material de obra aportado desde otras localizaciones para poder acometer con holgura el programa constructivo del encajonado de piedra.

Despejó cualquier duda a ese respecto el conjunto de vestigios que fueron descubiertos en los sondeos practicados en las áreas meridional y oriental al exterior de las ruinas. Todos ellos testimonian el uso del enclave de Legaño como un cementerio de cronología medieval, porque ofrecen características constructivas y formales que las relacionan con las evidencias que se reconocen arqueológicamente para esta tipología de yacimientos.

Si bien, como queda dicho, la paralización de los trabajos arqueológicos se produjo en el momento de detectar y certificar la tipología de los elementos funerarios medievales, ha sido posible reconocer la presencia de losas de piedra arenisca como cubiertas, alguna de ellas asociada a perforaciones circulares en el extremo occidental, con un tipo de características similares a las que se han señalado para las necrópolis del Oiz. Igualmente se detectaron los bordes superiores de piedras hincadas verticalmente formando alineaciones rectilíneas, reproduciendo formas y esquemas que la literatura arqueológica relaciona con las sepulturas de lajas. En uno de los casos, este conjunto de elementos aparecía asociado a una laja en posición vertical, clavada en la zona occidental de lo que se interpretó como una sepultura. La laja no presentaba evidencia alguna de inscripción o motivos decorativos.

Las distintas evidencias documentadas hacen del enclave de San Pedro de Legaño un emplazamiento

jarraitzeko eta sakontzeko. Lehenik, elementuaren biografiari buruzkoak, egun ezezagun zaizkigunak, argitzeko, leku hau okupatuko zuten unetik hasita gure garaira arteko arku kronologiko osoan. Lan honi begira eskura dauden iturri idatzi urriek eskaintzen duten informazio guztiz mugatua pizgarri nabarmena da oinarri arkeologikoko edozein azterketa programari ekiteko. Bigarrenik, Erdi Aroan zehar herriak nola osatu ziren argitzeko lanak erraztu ditzaketen datuak biltzeko. Azken batean, nekropoliak dira Erdi Aroko herriei halako ikusgarritasun arkeologiko bat ematen dioten elementuak.

de interés para continuar profundizando en su estudio. Primero, para recuperar informaciones que permitan despejar nuestro desconocimiento respecto a la biografía del elemento, en todo el arco cronológico que media entre el momento en el que pudo hacerse efectiva la ocupación del enclave y la actualidad. La limitación informativa que ofrece la escasa documentación textual disponible para esa tarea, alienta considerablemente a cualquier programa de estudio con una base arqueológica. Segundo, para sumar datos que favorezcan la tarea de aclarar los procesos de formación del poblamiento durante la Edad Media. Al fin y al cabo, las necrópolis son los elementos que dan visibilidad arqueológica a las aldeas medievales.

J.L. Ibarra Álvarez; R. Rodríguez Calleja

B.7. BUSTURIA

B.7.1. Goikoetxe leizea

Zuzendaritza: G. Aranzabal; J.C. López Quintana
Finantzazioa: ADES-AGIRI

B.7.1. Cueva de Goikoetxe

Dirección: G. Aranzabal; J.C. López Quintana
Financiación: ADES-AGIRI

On 24 May 2009, the ADES Pot Holing Group discovered and explored a large subterranean system within the Peña Forua (Forua-Murueta-Busturia) karstic sub-unit, identifying various deposits containing paleontological materials throughout all the galleries explored.

2009ko maiatzaren 24an ADES Espeleologia Taldeak Forua Haitzeko (Forua-Murueta-Busturia) karst azpi-unitatearen barruan zorupeko sistema garrantzitsu bat aurkitu eta miatu zuen, eta arakatutako galerietan barrena eduki paleontologikoa zuten hainbat depositu identifikatu zituen. 2009ko uztailaren 5ean ADES eta AGIRI taldeetako kideak leizera joan eta hondakin paleontologikoak zeuzkaten hainbat testuinguru estratigrafiko aztertu zituzten, leizeko deposituaren lodiera geologiko eta paleoklimatiko handia agerian utzita. Une horretatik aurrera Goikoetxe-Malloku sistema aztertzeko talde diziplina anitz bat osatu zen, txosten honen sinatzaileak bildu zituena.

Goikoetxe-Malloku sistema arakatzen hasi ginenez geroztik, ADES taldeak in situ utzi ditu aurkitutako hondakin paleontologikoak, denak miaketa lanetan zehar ukitu edo nahasi zitezkeen gainazaleko aurkikuntzak izan ezik. Bildutako hezurrek dagokien erreferentzia dute leizeko topografian, eta haien tokian aurkikuntzaren datuak jasotzen dituzten etiketa plastifikatuak ipini ditugu. Oraingoz era askotako 6 depositu paleontologiko aurkitu ditugu (emanak daude haien erreferentziak), eta DP siglarekin bereizi ditugu iparraldetik hegoaldera (DP-1, DP-2, DP-3...). Parterrik handiena sistemaren erdiko mailan egokitzen da, DP-

El día 24 de mayo de 2009, el Grupo de Espeleología ADES descubre y explora un importante sistema subterráneo dentro de la subunidad kárstica de Peña Forua (Forua-Murueta-Busturia), reconociendo varios depósitos con contenido paleontológico a lo largo de las galerías exploradas. El 5 de julio de 2009, miembros de ADES y AGIRI realizan una visita a la cueva, examinando varios contextos estratigráficos con restos paleontológicos, y poniendo de manifiesto el gran potencial geológico y paleoclimático de la cavidad. A partir de ese momento, se constituye un equipo pluridisciplinar para el estudio del sistema Goikoetxe-Malloku, integrado por los firmantes de este texto.

Desde el comienzo de la exploración del sistema Goikoetxe-Malloku, por parte del ADES, los restos paleontológicos localizados se han mantenido *in situ*, salvo los hallazgos superficiales que podían ser alterados durante el transcurso de las exploraciones. Los huesos recogidos han sido convenientemente referenciados en la topografía de la cavidad, dejando en su posición una etiqueta plastificada con los datos del hallazgo. Por el momento, se han localizado y referenciado un total de 6 depósitos paleontológicos, de desigual entidad, habiéndose numerado de norte a sur con la sigla DP (DP-1, DP-2, DP-3...). La mayor parte se sitúa en